

UDALBATZARI

AL AYUNTAMIENTO PLENO

IRABAZI taldearen Arau Proposamena, Udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatik telefonia mugikorreko enpresei ezartzen zaizkien tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.

Proposición Normativa del Grupo IRABAZI relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por la Utilización Privativa y el Aprovechamiento Especial del Dominio Público Municipal a favor de las Empresas que Prestan Servicios de Telefonía Móvil.

Udaleko IRABAZI Taldeko bozeramaileek, 2017ko abuztuaren 11n, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatik telefonia mugikorreko enpresei ezartzen zaizkien tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza dela eta:

La Portavoz del Grupo IRABAZI presentó con fecha 11 de agosto de 2017 la siguiente Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por la Utilización Privativa y el Aprovechamiento Especial del Dominio Público Municipal a favor de las Empresas que Prestan Servicios de Telefonía Móvil:

“Tasa hau izoztuta dago 2012az geroztik. INEk emandako datuen arabera, 2012ko ekainetik 2017ko ekainera metatutako KPI % 2,9 izan da. Gainera, tasa hau aplikatzen zaien enpresek IBEX-35 burtsako indizean kotizatzen dute. Bertako irabazi garbiak % 66 igo ziren 2016an, 2015ekoekin alderatuta. Telefonica eta Iberdrola denen buru izan ziren.

“Esta tasa está congelada desde 2012. Según datos del INE, el IPC acumulado de junio 2012 a junio 2017 ha sido de un 2,9%. Además, la mayoría de las empresas a las que les es de aplicación esta tasa cotizan en el índice bursatil IBEX-35, cuyo beneficios netos en 2016 crecieron un 66% respecto a 2015, a la cabeza se situaron Telefónica e Iberdrola

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo den eranskinean jasotako kopuruak % 2,9ko igotzea proposatzen dugu. Hala, oinarritzko tarifa 609.766,88 €-koa izango litzateke.

Proponemos un incremento en el Anexo a regir a partir del 1 de enero de 2018 de un 2,9%, de manera que la tarifa básica sea de 609.766,88 €.

Zerbitzu horiek erabiltzen duten pertsonen ematen zaien tratamendua eta herritar guztiengan edo haietako batzuegan eragina duten interes orokorreko zerbitzu nahiz hornidurak ematen dituzten enpresen erabiltzaileei ematen zaiena berbera izateko, zerga-kuotari buruz diharduen 6. artikulua aldatzea proposatzen dugu, 5. puntu bat gehituz, honela dioena:

Con el objetivo de que el tratamiento para las personas usuarias de estos servicios, sea igual al de las empresas que prestan servicios o suministros de interés general o que afectan a la generalidad o una parte importante del vecindario, proponemos una modificación del Artículo 6.- Cuota tributaria, de manera que se añada un punto 5 al mismo, con el siguiente literal:

5.- Tasa hau aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa ezin izango zaie jasanarazi erabiltzaileei.

5.- El importe derivado de la aplicación de esta tasa no podrá ser repercutido a las personas usuarias.

Horiek horrela, honako ERABAKIAK hartzea proposatzen diogu Donostiako Udaltzariari:

Por todo ello, proponemos al Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, los siguientes ACUERDOS:

LEHENENGOA:

Onartzea Udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatik telefonia mugikorreko enpresei ezartzen zaizkien tasak arautzen dituen Ordenantzaren Eranskina azalpen zatian adierazitako eran aldatzea.

PRIMERO:

Aprobar la modificación del Anexo a la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por la Utilización Privativa y el Aprovechamiento Especial del Dominio Público Municipal a favor de las Empresas que Prestan Servicios de Telefonía Móvil, descrita en la parte expositiva.

BIGARRENA:

Zerga-kuotaz diharduen 6. artikuluari 5. puntu bat gehitzea, honela dioena:

SEGUNDO:

Añadición de un punto 5, al Artículo 6.- Cuota tributaria:

5.- Tasa hau aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa ezin izango zaie jasanarazi erabiltzaileei.

5.- El importe derivado de la aplicación de esta tasa no podrá ser repercutido a las personas usuarias.

HIRUGARRENA:

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo den erabaki hau 1989ko uztailearen 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki izapidetzea. Hala, bada, erreklamazioak aurkeztu ezean behin-behineko erabaki hau behin betiko bihurtuko da.

TERCERO:

Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2018, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 1171989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene en definitivo si no se presentan reclamaciones.



Ogasun Batzordeak, 2017ko irailaren 13ko bilkuran, aurreko Arau proposamena, zuzenketarik gabe, aztertu du.

En sesión de 13 de septiembre de 2017, la Comisión de Hacienda ha dictaminado, sin enmiendas, la precedente Proposición Normativa.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

ERABAKIAK:

ACUERDOS:

LEHENA: Onartzea Udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatik telefonia mugikorreko enpresei ezartzen zaizkien tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzaren 6. artikulua eta eranskina aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

PRIMERO: Aprobar la modificación del artículo 6 y del anexo a la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por la Utilización Privativa y el Aprovechamiento Especial del Dominio Público Municipal a favor de las Empresas que Prestan Servicios de Telefonía Móvil, descrita en la parte expositiva.

BIGARRENA: 2018ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituen) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

SEGUNDO: Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2018, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

Donostia, 2017ko irailaren 14a

San Sebastián, 14 de septiembre de 2017

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO

JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA